



UDALERRIETAKO LURRALDE-BATZORDEAK

Euskadi Lagunkoia sarea

Euskadi Lagunkoia sarearen helburua da herritarren eta sektore publiko, pribatu eta sozialaren partaidetza sustatzea Euskal Herrian lagunkoitasunaren mugimendua garatzeko, adinekoei bizimodua erraztuko dieten inguruneak sor daitezen. Gaur egun, 57 udalerrri daude sareari atxikita (2018ko azaroa).

Helburuak:

Udalerrri horiek sarean lan egin dezaten sustatuz, *Euskadi Lagunkoia sareari atxikitako udalerrrien lurralde-batzordeak* jarri dira martxan.

Helburu espezifikoak:

- Proiektua aurrera eramatea.
- Haren garapenean parte hartzea eta esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko.
- Programak martxan jartzeko ideiak sortzea.
- Arazoak eta beharrak hautematea.
- Lorpenak eta aukerak partekatzea.
- Programak oro har zer garapen duen baloratzea eta garapen horren segimendua egitea.

Osaera:

Talde eragileetako eta Euskadi Lagunkoia sarea osatzen duten udaletako ordezkariak.

Arabako Lurralde Batzordea udalerrri hauek osatzen dute (15):

Añanako Kuadrilla: (9 udalerrri)

- | | |
|-------------------|---------------------|
| 1. Añana | 7. Kuartango |
| 2. Armiñón | 8. Lantarón |
| 3. Berantevilla | 9. Zambrana |
| 4. Erriberagoitia | 10. Kanpezu |
| 5. Gaubea | 11. Vitoria-Gasteiz |
| 6. Iruña Oka | 12. Amurrio |



13. Villabuena

15. Agurain

14. Maeztu

Bizkaiko Lurralde Batzordea udalerrri hauek osatzen dute (19):

1. Bilbo

11. Lekeitio

2. Getxo

12. Igorre

3. Abanto-Zierbena

13. Ispaster

4. Ea

14. Ermua

5. Bermeo

15. Portugalete

6. Durango

16. Mendexa

7. Santurtzi

17. Mungia

8. Larrabetzu

18. Muskiz

9. Abadiño

19. Balmaseda

10. Basauri

Gipuzkoako Lurralde Batzordea udalerrri hauek osatzen dute (23):

1. Ordizia

13. Irura

2. Zumarraga

14. Beasain

3. Orio

15. Donostia

4. Hondarribia

16. Zestoa

5. Idiazabal

17. Zaldibia

6. Antzuola

18. Ormaiztegi

7. Eibar

19. Irun

8. Zarautz

20. Azkoitia

9. Legazpi

21. Aretxabaleta

10. Eskoriatza

22. Elgoibar

11. Urnieta

23. Bergara

12. Urretxu

Eskumenak: Batzordeak proiektua gidatu behar du, modu dinamiko eta berritzailean, eta herritarren, gizarte-eragileen eta udalen partaidetza bilatu, Euskadi osasuna eta partaidetza aktiboa auzo eta udalerrri guztietan bultzatzen dituen lurralde bihurtzeko etengabeko ahaleaginean.



Euskadiko batzordea: Lurralde-batzordeak osatuta, Euskadiko batzordea jarriko da martxan, eta talde eragileetako eta lurralde-batzorde bakoitzean dauden udaletako ordezkariak osatuko dute.

Bizkaiko Lurralde Batzordearen laburpena 2018/11/05

1. Bertaratuen zerrenda:

- Abadiño
- Basauri
- Durango
- Ea
- Ermua
- Getxo
- Igorre
- Ispaster
- Lekeitio
- Mungia
- Portugalete
- Santurtzi
- Bizkaiko talde sustatzailea

2. Proiektuak udalerrietan duen garapenaren laburpena

Abadiño

2017ko maiatzean atxiki zitzaion proiektuari, eta 2017ko irailetik 2018ko ekainera bitartean gauzatu zen diagnostikoa egiteko prozesua. Guztira 271 galdera-sortari erantzun zitzairen, eta zenbait herri-topaketa egin ziren, bakoitza lau talde fokaletan banatuta, eta saioko 36 pertsona ingururekin. Herritarrek sortu zuten ekimena, eta prozesu osoan zehar eutsi dio izaera parte-hartzaile eta herrikoi horri.

Gaur egun, ekintza-plana prestatzen ari dira, eta, haren barruan, lan egiteko modua zehazten eta jardun zehatzak ezartzen. Horretarako, hainbat tresna sortzen ari dira, bai datuak biltzeko, bai ekintzen segimendua egiteko.



Basauri

2016an jarri zuen martxan ekimena Udalak, Deustuko Unibertsitatearen laguntzarekin.

Diagnostikoa egiteko, erakunde publikoetako profesionalen laguntza izan dute (Udala, Osakidetza, Aldundia...). Gaur egun, lagunkoitasun-diagnostikoaren zirriborroa prestatzen ari dira, 19 talde fokal osatu eta 151 galdera-sortari erantzun ondoren. Gainera, 19 pertsonako talde eragile bat osatu da, eta hamabost egunez behin biltzen da; kideek 60 urtetik gora dituzte eta udalerriko hainbat elkartetatik datoz.

Durango

2015ean amaitu zen diagnostikoa, eta 2016ko azaroan atxiki zitzaion sareari. Gaur egun, 2016-2018ko Ekintza Plana du; bertan, guztira, 66 jardun biltzen dira, eta jardun horiek, berriz, hainbat ekintza zehatzetan banatzen.

Ekintza aipagarrienak udalerriko mugikortasun seguruaren inguruan kontzientziatzearekin eta trebatzearekin erlazionatuta daude, baita espazio publikoak eta hiri-altzariak hobetzearekin ere.

Ea

2016an atxiki zitzaion Ea proiektuari. Lehenik, proiektuari buruzko informazioa eskaini zen hainbat bidetatik. Gero, diagnostikoa egin zen; horretarako, lau bilera egin ziren, eta 37 pertsonak hartu zuten parte. Diagnostikoa amaitutakoan, argitaratu egin zen, eta Eako herritarrekin partekatu.

Gero, bilera bat egin zen, ekintzak garrantziaren arabera sailkatzeko eta lehenesteko; zeregin horretan, Udalaren, herritarren eta beste erakunde batzuen eskumeneko ekintzak hartu ziren kontuan.

Talde eragilea zortzi pertsonak osatzen dute, eta, nahiz eta Lea-Artibaikoa ez izan, aldian-aldian haiekin elkartzen dira mankomunitaterako zenbait proposamen aztertzeko.



Ermua

Udalak jarri zuen martxan ekimena, eta, hura garatzeko, hainbat profesionalen osatutako talde tekniko bat sortu zen. 2016an, herritarrei aurkeztu zitzaien proiektua, eta partaideak erakarri ziren lantaldeak sortzeko. Azkenik, 2017ko azaroan atxiki zitzaion proiektuari; urte hartan bertan egin zen diagnostikoa, zenbait adinekok, zaintzailek eta zerbitzu-hornitzailek osatutako lau talde fokalen bidez.

2018an, talde eragilea eratzen eta ahalduntzen jardun dute. Gaur egun, ekintza-plana diseinatzeko fasean dago proiektua, eta talde eragileak erabakiko du nola parte hartu.

Getxo

2016ko ekainean atxiki zitzaion Getxo proiektuari. Diagnostikoa egiteko fasean, herritarren partaidetza bultzatu zen, eta, gero, talde eragilea osatu zen, prozesua bideratzeko.

Gaur egun, Getxo Lagunkoiako ekintza-plana prestatzen ari dira; horretarako, proiektuko arlo bakoitzaren beharrak alderatu eta definitzen dira. Aurreikuspenen arabera, 2019ko otsailean aurkeztuko da ekintza-plana.

Gainera, beste ekintza paralelo batzuk jarri dira martxan, plana prestatzen herritarrek parte har dezaten sustatzeko; esate baterako, Getxo Lagunkoffee.

Igorre

2016an eta 2017an egin zen diagnostikoa. 2017ko irailetik, ekintza-plana prestatzen ari dira. Horretarako, Bizi Batzordeko kideak bilerak egiten dituzte hilero, proiektuaren inguruko lehentasunak ezartzeko.

Gainera, beste ekintza batzuk gauzatu dituzte; esate baterako, Work Café bat udalerriko elkarte eta eragileekin, belaunaldiarteko zineforum bat eta adinekoentzako ginkana bat.

Ispaster



2017ko urtarrilean hasi zen lanean Ispaster lagunkoitasun-proiektuan. Lehenik, talde eragile bat sortu zen, zazpi pertsonaz osatutakoa; Nagusiak elkarteko bi, elkartekoak ez diren beste bi, gizarte-langile bat, gazte bat eta Udaleko ordezkari bat.

2017ko urtarriletik ekainera, hilean bitan bildu ziren Bizitzen Fundazioaren laguntzarekin, taldea zehazteko eta eratzeko. Ekainetik abendura, diagnostikoa egiteko metodologia ezarri zen.

2018an egin da diagnostikoa, eta ekainean aurkeztu zen. Irailetik, ekintza-plana diseinatzeko fasean dago proiektua.

Lekeitio

2016an jarri zen abian proiektua, eta talde eragilea finkatzeko egin zen lan; horretarako, parte hartu nahi zutenak identifikatu eta bildu ziren. Hurrengo urtean, proiektuari buruzko informazioa eskaini zen hainbat bidetatik. Horrekin batera, diagnostikoari ekin zitzaion.

2018ko martxoan, sei lantalde eratu ziren, eta galdera-sortak banatu. Ekainean, udalerriko diagnostikoa aurkeztu zen. Gaur egun, proposamenak aztertzen eta ekintza-plana diseinatzeko ari dira.

Mungia

2017ko azaroan proiektuaren hasiera onartu zen eta otsailan atxiki zitzaion Euskadi Lagunkoia sareari. Apirilan proiektua biztanleriari aurkeztu zitzaion eta partaidetza prozesuari hasiera eman zitzaion 68 pertsonekin. Maiatzan bigarren aurkezpena egin zen, bertara 130 bizilagun joan ziren.

Aurkezpenak egin ondoren, talde eragilea sortu zen 12 pertsonekin. Hauek bi bilera egin dituzte Ede Fundazioaren laguntza teknikoarekin. Gainera, 60 urte baino gehiagoko kideak dituzten taldeen partaidetza sustatu nahi da: Andui Kultur Elkartea, Tallu Mendizale Taldea, Diz-Diz Emakumeen Elkartea, MAE Antzerkizale Taldea, Ehiza eta Arrantza Elkartea, Mikologia Elkartea, J.M Arregi Abesbatza, eta abar.



Portugalete

2017an jarri zen martxan proiektua, eta, azkenean, 2018ko urtarrilean atxiki zitzaion udalerrria. Proiektuari buruzko informazioa eskaini zenetik, herritarren partaidetza sustatu da talde eragilea sortzeko; Portugaleteko Udala asko inplikatu da, eta BFAko talde eragilearen laguntza izan da.

Gaur egun, martxan jartzeko fasean daude, eta lantaldeekin galdera-sorta zehazten eta prestatzen ari dira.

Santurtzi

2017ko maiatzean atxiki zitzaion Santurtzi proiektuari, eta EDE Fundazioaren babesa du. Diagnostikoa egiteko, galdera-sortak prestatu ziren, baita talde fokalak eratu ere; gehienak adinekoak izan ziren, batez ere taldeetan.

Lagunkotasunari buruzko galdera-sortak 2017ko azaroan eta abenduan prestatu ziren, eta, guztira, 378 galdera-sortari erantzun zitzairen. Gaur egun, udalerrriak diagnostikoaren zirriborro bat du.

Lan handia egin da talde eragilea bateratzeko eta trebatzeko. 55 eta 80 urte bitarteko 10 pertsonak osatzen dute taldea; oso jende desberdina da, baina oso aktiboa.

Bizkaiko talde sustatzailea

Bizkaiko talde sustatzailea Bizkaiko Adinekoen Kontseiluko kide da. «Bizkaia, adin guztietako pertsonentzako lurralde lagunkoia» estrategia bideratzen eta sustatzen lagundu nahi du, baita zahartze aktiboaren inguruko proposamenak egin ere, betiere, partaidetza bultzatuz.

Adinekoen elkarteetako 12 bat pertsonak osatzen dute, eta, gaur egun, talde hauetako ordezkariak ditu: Nagusiak, Hartu Emanak, Secot, San Trokaz Elkartea, Bizidun, eta Igorreko, Ispasterreko eta Mendexako erretiratuen elkarteak.



3. Taldeen laburpena

3.1. Zer behar edo arazorekin egin duzue topo proiektua garatzeko?

Partaidetza eta dinamizazioa

Udalerri batzuetan, zailtasunak daude taldeak dinamizatzeko eta taldekideen partaidetza eta kohesioa sustatzeko.

Komunikazioa

Udalarekiko eta beste erakunde batzuekiko komunikazioa hobetu behar dela aipatu da, baita udalerrien artekoa ere. Informazioa bileretatik kanpo eta etengabe zabaltzea.

Erraztailearen eginkizuna taldeko dinamiketan

Zailtasunak hauteman dira erraztaileak taldeko dinamiketan zer eginkizun duen eta nola esku hartu behar duen zehazterakoan.

Gazteen partaidetza

Zailtasunak daude proiektuan gazteak dinamizatzeko eta inplikatzeko.

3.2. Zer gauza lortu dituzue prozesuan zehar?

Udalerrien arteko komunikazioa

Hobetu egin dira eskualde bereko udalerrien arteko harremanak eta komunikazioa; hortaz, errazagoa da esperientziak partekatzea.

Partaidetza

Herritar askok parte hartzen duten udalerrietan, erraz sortu dira taldeak, eta jendea asko inplikatu da.

3.3. Nola egin dezakegu lan sarean? Nola komunika gaitezke?

Bilerak



Bilerak maizago egitea eta zer maiztasunekin egin adostea proposatzen da, hau lortzeko: motibazioari eustea, ekintza-plana zehaztea, taldeko kohesioa eta beste erakunde laguntzaile batzuekiko komunikazioa indartzea.

Bilera bakoitzaren aurretik, aztergaien zerrenda erabakitzea eta, ondoren, bilera bakoitzean hitz egindakoaaren laburpena egitea.

Komunikazioa

Udalen eta Euskadi Lagunkoiaren webguneak hobetzea eta eguneratzea: proiektuak udalerrri bakoitzean izan duen aurrerapenari buruzko informazio gehiago biltzea eta harremanetarako datuak sartzea.

<https://www.euskadilagunkoia.net/eu/udalerrriak/udalerrri-lagunkoiak>

Dokumentazioa

Proiektuari buruzko dokumentazioa etengabe trukitzea eta banatzea, formatu guztietan (paperean eta digitalki).

Arabako Lurralde Batzordearen laburpena

2018/11/06

1. Bertaratuen zerrenda eta harremanetarako datuak:

- Agurain
- Amurrio
- Campezo
- Cuadrilla de Añana
- Kuartango

2. Proiektuak udalerrietan duen garapenaren laburpena

Agurain

Udalerrria atxikitze-dokumentua sinatzeko prozesuan dago oraindik.



Amurrio

2016ko urrian atxiki zitzaion udalerrria sareari. Gaur egun, amaituta du diagnostikoa, eta ekintza-plana diseinatzen ari da. Hona hemen Amurrio Lagunkoia ekimenaren barruan martxan jarri diren ekintza aipagarrienetako batzuk:

- Adinekoen kontseilu bat sortzea: martxan. Kontseilu hori Amurrio Lagunkoia ekimeneko talde eragilea izatea nahi da.
- Amurrio Mugi: Jarduera fisikoa eta gizarte-ekintzak (adibidez, paseoak) sustatzeko lantaldeak.

Kanpezu

Amaitu du diagnostikoa. Oso positiboak izan dira diagnostikoaren emaitzak. Landa-inguruneke udalerrri bat da; hirugarren adinekoen ikasgelak ditu, eta ikasgela horietan Erretiratuen Elkarteak hartzen du parte.

Añanako Kuadrilla

2013ko azaroan, Añanako Kuadrillako bederatzia udalerrri atxiki zitzaizkion Euskadi Lagunkoia sareari. Hain zuzen ere, udalerrri hauek: Añana, Armiñón, Berantevilla, Iruña Oka, Kuartango, Lantarón, Erriberagoitia, Gaubea eta Zambrana.

2013 eta 2014 artean, udalerrri horien diagnostikoa egin zen, eta martxan jarri beharreko ekintzen zerrenda proposatu.

Gaur egun, Kuadrillak adinekoen inguruko ekintza-programetan lanean jarraitzen du, baina, oro har, aurrerapen txikia izan da Euskadi Lagunkoia programan.

Kuartango (Añanako Kuadrillako udalerrria)

2013an atxiki ziren udalerrrietako bat da Kuartango. Hona hemen martxan jarri diren ekintza-programetako batzuk:

- Despopulazioa aztertzeke programak.
- Mugiment: Jarduera fisikoa eta zahartze aktiboa sustatzea. Adinekoentzako zerbitzu medikoak eta sozialak koordinatzea: kontsultategia, orientazioa.
- Cáritasekin elkarlanean aritzea: memoria-tailerrak, argazki-erakusketa, argazkien liburu baten argitalpena.



- Legatuaren proiektua («Kuartangoren gogoan»): artxibo etnografikoa (grabazioak, oroitzapenak biltzea).
- Belaunaldiarteko urteko topaketa.

3. Taldeen laburpena

3.1. Zer behar edo arazorekin egin duzue topo proiektua garatzeko?

Izaera landatarra

Izaera landatar handiena duten udalerrietako despopulazioak zaildu egin du lantaldeak sortzea eta jendeak parte hartzea. Udalerri batetik bestera edo udalerrietatik hiriburura joateko garraio-aukerak txikiak izateak ere eragina du partaidetza txiki horretan.

Komunikazio-arazoak daude udalerrien artean.

Partaidetza

Arazoak daude parte hartuko duen jende berria erakartzeko.

Plana ezartzeko fasean, baliteke motibazioa txikitzea, diagnostikoa egiteko fasean izandakoarekin alderatuta.

Zailtasunak daude, halaber, beste era batzuetako elkarteekin koordinatzeko.

Finantzaketa

Arazoak daude ekintza zehatz batzuk finantzatzeko; batez ere, batetik bestera joan beharra eskatzen dutenak.

3.2. Zer gauza lortu dituzue prozesuan zehar?

Partaidetza

Adinekoen talde-lana, kohesioa eta partaidetza indartu da.

Gainera, beste jarduera batzuk egin dira erretiratuen etxean; eremua eguneratu da, baita hura kudeatzeko modua ere.

Beste eragile batzuekiko lana



Udalerriko erakunde ugari hartu dute parte proiektuan.

Egindako lana

Elkartasuna handitu da, baita herritar guztien ongizatearen eta bizi-kalitatearen aldeko ekintzen kopurua ere.

Lantaldeen bidez eta zahartze aktiboa sustatuta programak bakardadea arintzen lagun dezakeela ikusi da.

Horretaz gain, udalerrri batzuetan, euskal nortasunarekin eta kulturarekin erlazionatutako tradizioak berreskuratzeko lan egin da proiektuaren barruan, baita ia erabat desagertu diren lanbideak ere.

3.3. Nola egin dezakegu lan sarean? Nola komunika gaitezke?

Komunikazioa

Sareko kideekin harremanetan jartzeko datuak partekatzea proposatu da, baita posta elektronikoko edo WhatsApp bidezko komunikazioa sustatzea ere.

Aurrez aurreko bilerak

Gutxienez urtean bitan bilerak egitea.

Gipuzkoako Lurralde Batzordearen laburpena

2018/11/07

1. Bertaratuen zerrenda eta harremanetarako datuak:

- Antzuola
- Aretxabaleta
- Azkoitia
- Beasain
- Bergara
- Donostia
- Elgoibar
- Eskoriatza
- Irura
- Legazpi



- Ordizia
- Ormaiztegi
- Zestoa

2. Proiektuak udalerrietan duen garapenaren laburpena

Antzuola

2014ko abenduan atxiki zitzaion Antzuola proiektuari. 2016an, diagnostikoa egiteko fasea amaitu zen.

Lagunkoitasun Planak 75 ekintza ditu 2016tik 2019ra, eta gehienak amaituta daude. Mugikortasuna, gizarte-harremanak eta ohitura osasungarriak bultzatzeko ekintzak gauzatu dira. Hurrengo mugikortasun-proiektuak garraio publikoarekin eta bidegorriekin erlazionatuta daude. Legatuari eta belaunaldiarteko topaketen sustapenari lotutako jarduerak ere garatu dira.

Datorren urtean, beste diagnostiko bat egitea aurreikusten da.

Aretxabaleta

2017an, diagnostikoa eguneratu zen. Udalak elkarrizketa ireki bat ezarri du, eta, hari esker, ekintza-programa zehatz bat jarri ahal izan da martxan.

Gaur egun, proiektua bakarrik bizi diren 70 urtetik gorako pertsonen bizimodua aztertzen ari da.

Eskualdeko herriekin batera, «Debagoiena Lagunkoia» plana garatu da; hari dagokionez, plan komun bat eta diagnostiko bat proposatu dira, hiru gairen inguruan: ura, garraioa eta txakurrak.

Azkoitia

2016an hasi zen proiektua, eta 2017ko maiatzean sinatu zuen atxikitze-dokumentua. Gaur egun, proiektua ekintzak zehazteko fasean dago.

Horrekin batera, beste jarduera batzuk egin dira; esaterako, emozioen edo teknologia berrien inguruko trebakuntza-tailerrak.



Beasain

2015. urtearen amaieran jarri zuen martxan Beasainek proiektua. Adinekoak ordezkatzen dituzten lau taldek osatzen dute talde eragilea. Diotenez, diagnostikoa egiteko fasean etxebizitzetarako sarbideen arazoa nabarmendu zen.

Oro har, Udalarekin batera egindako talde-lana positiboa izan da eta, hari esker, hobetu egin da herritarren eta Udalaren arteko komunikazioa.

Bergara

2016an jarri zen martxan proiektua. Gaur egun, diagnostikoa egiteko fasean dago proiektua; arloak ebaluatzen ari dira, galdera-sorten erantzunak jaso ondoren.

Donostia

Donostian, 2009an jarri zen martxan proiektua. Hiri Plana lantzen ari dira, lau lan-ardatzen inguruan:

- Espazio publikoa (elkarbizitza, elkarrekintza soziala eta belaunaldien arteko harremana sortuko dituen espazioa) eta mugikortasuna (irisgarritasuna eta segurtasuna)
- Etxebizitza (gorakada datozen urteetan, aldaketak etxebizitza-politikan...)
- Bakardadea, isolamendua (ikuspegi komunitarioa)
- Erakundeen zahartzea, belaunaldi-txandaketa, erretiro masiboak

Oro har, proiektuan adineko askok hartu dute parte. Ikuspegi komunitario batetik egin dute lan, eta, une honetan, zahartasunaren estereotipoekin erlazionatutako jarduerak garatzen ari dira.

Elgoibar

2018. urtearen erdialdean jarri zen martxan, eta, une honetan, diagnostikoa egiten hasi dira. Talde eragilea 7-8 pertsonak osatzen dute (auzo-alkateak, erretiratuen elkarteko ordezkariak, Cáritaseko ordezkariak eta udal teknikaria).

Eskoriatza



2016an jarri zen martxan proiektua. Diagnostikoa egiterakoan, zailtasunak izan ziren talde adierazgarri bat sortzeko. Ekintza-planean, arazoak izan dira diagnostikoan jasotako proposamen guztiak bideratzeko.

Irura

2016an jarri zuen martxan Irurak proiektua. 2016an eta 2017an, diagnostikoa egiteko fasea egin zen. Gaur egun, ekintzak ezartzeko fasean dago.

Legazpi

2017an amaitu zen diagnostikoa egiteko fasea. Mugikortasunarekin eta merkataritzarekin erlazionatutako ekintzak gauzatu dira. Talde eragileak dekalogo bat prestatu du dendentzat, dendarien eta bezeroen arteko komunikazioa eta harremana hobetzeko.

Ordizia

2014an amaitu zen diagnostikoa egiteko fasea. Zenbait ekintza garatu dira merkataritza lagunkoia, denboraren bankua, belaunaldiarteko lana eta boluntario-lana sustatzeko.

Ormaiztegi

2016an atxiki zitzaion udalerrria proiektuari. Talde eragile egonkor bat du proiektuak. Talde horrek herri-topaketak antolatzen ditu, eta gazteek ere hartzen dute parte topaketa horietan.

Amaitu da diagnostikoa egiteko fasea. Gainera, Ttipi-Ttapa programa jarri da martxan; haren helburua da adinekoen osasun fisikoa eta mentala hobetzea.

Zestoa

2015ean jarri zen martxan proiektua. Hasiera zaila izan zuen, udal aldaketaren ondorioz. Gaur egun, diagnostikoa egiteko fasea amaitzen ari da udalerrria.



3. Taldeen laburpena

3.1. Zer behar edo arazorekin egin duzue topo proiektua garatzeko?

Partaidetza

Proiektuaren hasieran, udalerrri batzuek esan dute zailtasunak izan dituztela taldeak osatzeko, herritar gutxi parte hartzen dutelako eta motibazioa txikia delako.

Udalerrri batzuen arabera, udala ere ez da askorik inplikatzeko.

Belaunaldiarteko lana

Diotenez, beharrezkoa da belaunaldiarteko lanaren garrantziaz kontzientziaztea, adin guztietako biztanleek parte har dezaten programetan.

Eginkizunak zehaztea

Beharrezkoa da eragile bakoitzaren eginkizunak eta eskumenak zehaztea (udala, talde eragilea...).

Legegintzaldi-aldaketa

Udala aldatzearen ondorioz, arazoak hauteman dira proiektuarekin jarraitzeko alderdi politikoaren arabera. Legegintzaldi-aldaketaren ondorioz, gainera, aldatu egin da Udaleko erreferentziako pertsona.

3.2. Zer gauza lortu dituzue prozesuan zehar?

Ahalduntzea eta kide izatearen sentimendua

Talde eragileak ahaldunduta sentitzen dira. Partaideen artean kide izatearen eta erabilgarri izatearen sentimendua da nagusi.

Ikusgaitasuna

Gauzatutako ekintzen bidez, ikusgaitasun handiagoa eman zaie adinekoei.

Udalaren eta herritarren arteko komunikazio-bidea

Adinekoen partaidetza aktiboak udalaren eta herritarren arteko harremana sendotu du.

Beste erakunde batzuekin egindako lana



Hobetu egin da udalerriko erakundeen partaidetza eta haien arteko komunikazioa, eta, horri esker, komunitatearen gizarte-kohesioa bultzatu.

3.3. Nola egin dezakegu lan sarean? Nola komunika gaitzke?

Komunikazioa hobetzea

Beste udalerrri batzuekiko talde-lana hobetzeko, komunikazio-tresna berriak erabiltzea proposatzen da (posta elektronikoa edo WhatsApp).

Lotura handiagoa udalerrri txikien artean

Elkarrengandik hurbil dauden udalerrrien arteko komunikazioa eta talde-lana sustatzea (eskualdea).

Helburu komunak zehaztea

Udalerrri guztiek egingarriak eta erraz baloratzeko modukoak diren epe laburreko helburu komunak zehaztea.

Denboraren poderioz proiektua moldatzea

Udalerrri bakoitzaren ezaugarriak aldatu egiten direnez denborak aurrera egin ahala, beharrezkoa da proiektuaren ildo orokorrak moldatzea eta unean uneko herritarren ezaugarrietara egokitzea.

Bilerak

Bileretako aktak biltzea eta aurkeztea.